

AZTERKETA IDATZIAK

IKASLEEN JARDUERA-PROTOKOLOA

1. AZTERKETA EGIN AURRETIK

1.1. Eraikinean sartu aurretik.

- Etxean tenperatura neurtuko dute. 37,5°C baino gehiago izanez gero, ez dira eskolara joango.
- Maskara ekarri behar dute.
- Bakoitzak bere boligrafoa eta behar duen material guztia ekarri behar du.
- Kalean itxaron behar dute atezainak sartzeko esan arte.

1.2. Azterketa egingo den gelara sartu aurretik:

- Gel hidroalkoholikoarekin garbitu behar dituzte eskuak eskolara eta gelara sartu aurretik.
- Zuzenean ikasgelara joango dira, korridoreetan geratu gabe, pilaketak saihesteko.

2. AZTERKETA EGIN BITARTEAN

- EZIN dute maskara kendu azterketa egiteko.
- EZIN dute jarlekua mugitu, une oro zaindu beharreko distantzia gorde ahal izateko (metro eta erdi).
- Dokumentazioa jarlekuaren gainean utzita identifikatuko dute euren burua.
- Azterketa bukatutakoan, irakaslearen mahai gainean dauden bi kaxatan utziko dira azterketa eta azterketaren erantzun orria, bakoitzari dagokion kaxan.
- C1 mailako azterketan, 15 minutuko etenaldian, idatzizko adierazpena egin aurretik, ikasleak segurtasun-distantzia mantenduz, irten beharko du eskolatik, eta, behin lau lagunetik gorako taldeetan bildu gabe.
- Sartzean, eskuak garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin berriro, eta azterketaren lehen zatian zuten leku berean eseriko dira.

3. AZTERKETA EGIN ONDOREN

- Mukizapiak edo bestelako osasun-materialik erabili badute, gelan dagoen ontzian bota behar dute.
- Azterketa gelatik irtendakoan, ikasleak egiaztagiria beharko balu, atezainari jakinaraziko dio eta posta elektronikoaren bidez bidaliko zaio.
- Eskolatik ezkerreko atetik irtengo dira.